

Fumonisinek animalien osasunerako izan ditzaketen arriskuak

DESKARGATU PDF

EFSAk, Europako Batzordeak eskatuta, irizpen zientifiko bat argitaratu du pentsuetan dauden fumonisinek eta horien forma aldatu eta ezkutukoek animalien osasunarentzat duten arriskuari buruz.

Fumonisinak mikotoxinak dira, nagusiki

Fusarium verticillioides

eta

Fusarium proliferatum

onddoek sortuak. Zerealeetan sortzen dira batik bat, bereziki artoan.

B1 fumonisina (FB1), FB2 eta FB3 dira pentsuetako fumonisina ohikoenak, eta, horrenbestez, EFSako adituen taldeak eginiko ebaluazioan sartu dira. FB1, FB2 eta FB3 fumonisinek ekiteko modu bera dute, eta profil toxikologiko antzekoa dutela uste da.

Elikakateko kutsatzaileei buruzko EFSako adituen taldeak (CONTAM) honako ondorio hauek azpimarratu ditu:

Ondorio kaltegarriak ez dakarren maila (NOAEL) identifikatu da behientzat, txerrientzat, eskortako hegaztientzat (oilaskoak, ahateak eta indioilarrak) eta zaldientzat.

Ondorio kaltegarrien maila baxuena (LOAEL) identifikatu da arraintentzat (karpatik estrapolatuak) eta untxientzat.

Ezin izan da erreferentzia-punturik identifikatu ardientzat, ahuntzentzat, txakurrentzat, katuentzat eta bisoientzat.

Elikagaien bidezko esposizioa ikusi zen 18.140 laginetan, FB1-3 fumonisinei dagokienez. Lagin horiek ordezkatzan dituzte fumonisinak izan ditzaketen elikadura-produktu ia guztiak.

Laginak 2003tik 2016ra bitartean jaso ziren Europako 19 herrialdeetan, baina gehienak lau estatu kidetakoak dira.

Ezkutuko fumonisinak formak izan dezaketen agerpena kontuan hartzeko, 1,6ko faktore gehigarri bat aplikatu zitzaizkien agerpen-datuei, literatura zientifikotik eratorria.

Fumonisinak forma aldatuentzat ez zen daturik identifikatu agerpenei eta toxikotasunari dagokienez; hortaz, ez ziren sartu ebaluazioan.

Batez besteko esposizioaren kalkuluak oinarri hartuta, FB1-3 duten elikagaiek ondorio kaltegarriak izateko arriskua oso txikia da hausnarkarientzat, txikia da eskortako hegaztientzat, zaldientzat, untxientzat eta arraintentzat, eta kezkarria izan daiteke txerrientzat.

Ondorio berak aplikatzen zaizkie FB1-3ren baturari eta fumonisinak ezkutuko formei, txerrien kasuan izan ezik, horien osasunean ondorio kaltegarriak izateko arriskua kezkarritzat jo baitzen.

EFSAren iritzi zientifikoa pentsuetako fumonisinei buruz

ELIKA

. Granja Modelo, z/g . 01192 . Arkaute (Araba) . Telefonoa: 945 122 170 . Faxe: 945 122 171 .

berri@elika.eus

Close

Necessary

Always Enabled